



AEROBIKA 2026

ARAUDIA

Eusko Jaurlaritzako Jarduera Fisikoa eta Kirolaren Zuzendaritzak, Euskadiko Gimnastika Federazioarekin batera, 2026ko maiatzaren 23an **Euskadiko XLIII. Eskolarteko Kirol Jokoak** antolatuko ditu **Eskoriatzako Manuel Muñoz** Udal Kiroldegian (Gipuzkoa), ondorengo araudiaren arabera:

1. ADINAK ETA KATEGORIAK

Infantilak, 2012-2013 urte bitartean jaiotakoak eta alebinak, 2014 urtean jaiotakoak.

Partaideen eskola lizentziak aurkeztu beharko dira, edo bestela, parte-hartzaileen triptikoa, dagokion Foru Aldundiaren zigilu eta sinadurarekin. Horiek aurkezten ez badira, NAN edo pasaporte originala aurkeztu beharko da aktan inskribatu ahal izateko, bestela, ezin izango du ekintzan parte hartu

2. TXAPELKETA MOTA

- 4 – 8 kidez osatutako taldeak (mistoak edo ez)
- Hirunaka
- Binaka (mistoak edo ez)
- Banaka

Oharra: Gimnastek bi modalitatetan soilik parte hartu ahal izango dute.

- Lehiaketa-eremua: 10x10 metroko azalera laua bi kategorietarako eta modalitate guztietarako. Eremua 5 cm-ko zabalerako lerro batek mugatuko du, lehiaketa-eremuan integratuta.



- Ariketek minutu 1 eta 15 segundo iraungo dute alebin kategorian, eta minutu 1 eta 15 segundo infantiletan. Ariketa osoa musikarekin egin behar da.
- Musika lehiaketa aurreko astean bidaliko da federaziora, musicasfvg@gmail.com helbidera.
- Jantzera GFI kodearen arabera izango da (galtzerdiak ez dira beharrezkoak izango).
- Zapatilak txuriak izan behar dira.
- Euskadiko Txapelketarako kategoria bakoitzeko lehenengo 5 taldeak klasifikatuko dira, binaka, hirukote eta taldeen artean banatuak.

3. KIROL SARIAK

Ondorengo kirol sari hauek egongo dira:

- 4 - 8 kideetako taldeak: Saria sailkatutako 1go, 2. eta 3. taldeei emango zaie.
- Hirukoteak: Saria sailkatutako 1go, 2. eta 3. hirukoteei emango zaie.
- Binaka: Saria sailkatutako 1go, 2. eta 3. bikoteei emango zaie.
- Banaka: Saria sailkatutako 1go, 2. eta 3. ei emango zaie.

4. EDOZEIN EZUSTEKOREN AURREAN

Lesio edo ezbeharririk sortu ezkeru nahi eta nahi ez antolakuntzak kirol eremuan izango duen arduradunarengana jo beharko da. Honek eman beharreko gainontzeko pausuak bideratuko ditu.

5. AZKEN OHARRA

Araudi honetan jasotzen ez diren kasuak Euskal Federazioaren lehiaketa-batzordeak erabakiko ditu eta bere erabakiak apelaezinak izango dira.

Araudi honetan jasotzen ez diren gaietan hauei jarraituko zaie:

- a) 2/2023 LEGEA, martxoaren 30ekoa, Euskadiko jarduera fisikoaren eta kirolarena.
- b) 125/2008 DEKRETUA, uztailaren 1ekoa, Eskola Kirolarena.



EUSKADIKO XLIII. ESKOLARTEKO KIROL JOKOAK
XLIII JUEGOS DEPORTIVOS ESCOLARES DE EUSKADI



- c) 391/2013 DEKRETUA, uztailaren 23koa, eskola-kiroleko lehiaketan diziplina-araubideari buruzkoa.
- d) AGINDUA, 2026ko urtarrilaren 27koa, Lehenengo Lehendakariorde eta Kultura eta Hizkuntza Politika sailburuarena, 2026ko Euskadiko Eskolarteko Kirol Jokoen XLIII. edizioaren deialdia egiteko dena.
- e) Ebazpena, 2026ko otsailaren 2koa, Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren zuzendariarena, 2026ko Euskadiko Eskolarteko Kirol Jokoen XLIII edizioako lehiaketako epaile bakarria izendatzen duena.
- f) Euskadiko gimnastika (Aerobik) federazioaren araudiak xedatzen duenari.

Euskara eta gaztelaniazko araudien interpretazioetan ezberdintasunak izan ezker, jatorrizko hizkuntza lehentasuna izango du.